

## 'Linbotarrak'

**A**sier Serranoren *Linbotarrak* (Pamiela, 2016) honetan “askotarikoak dira irudi poetikoak, erreferentzia eta estilo arras desberdinetakoak, eta gehiengotan ageriko loturarik gabe, collage moduan uztartuak”. Epaimahaiak hala definitu zuen poemarioa, Xabier Lete hirugarren sariketan gailendu ostean: “dezen-te du pop-etik edo are poesia filosofikotik ere. Ororen buru, hizkera eta irudi zuzenak erraz biltzen du irakurlea poetak egiten duen barne bidaiara”. Eibartarrak dio, gainera, gero eta gutxiago sinesten duela giza taldeetan, eta gero eta gehiago indibiduoan: “poema hauek ere solte mintzo dira eta nahigabeen osatzen dute talde edo bilduma bat. Nire linbotarrak gehiago gerturaten dira hildakoen bizimodua dramaten bizidunetara, edo bizirik dirauten hildako horien oroitzapenetara”. Gure gizarte hau, lurraren mantuan bizi dena, infernuaren eta zeruaren artean, hori da liburu honetara ekarri gura izan duena: zapaltzen dugun lur hau, asfaltozkoa, harrizkoa, porlanezkoa, lokatzezkoa...

